

LANDARE BIOLOGIA (BOTANIKA)

LAN PRAKTIKOA

Izena eta Abizenak: Itsasne Zipitria Sinde

Izena eta Abizenak: Ane Azkarate Unamuno

**Egin beharrekoa:**

Lotu deskribapen bakoitza laminetako espezie batekin.

- Idatzi, beraz, laminaren zenbakia dagokion deskribapenaren ondoko gelatxoan
- Horrez gain, espezie bakoitzari buruz eskatzen den ezaugarria nolakoa den idatzi
- Azkenik espezie bakoitzaren Izen zientifikoa eta Familia idatzi. Guztiak paneletan daude.

	DESKRIBAPENA	Lam zk.	EZAUGARRIA	ESPEZIEA	FAMILIA
1	Hosto txandakatuak eta lantzeolatuak; ertza erregulariki zerratua eta azpialdea iletsu-zetakara. Inflorestzentziak sexubakarreko amentuak dira. Lore aklamideoak (periantorik gabekoak).	11	Obulutegia: sinkarpikoa ala apokarpikoa. Eta karpelo kopurua: Obulutegia sinkarpoa eta bi karpelo dituen bikarpelarria da	<i>Salix alba</i>	Salicaceae
2	Peziolodun hosto obatu-lantzeolatuak, ertza zerratuarekin. Lore txikiak, goi-adabegietan zintzilik dauden panikuletan bilduta. Perianto bertizilo bakarra (monoklamideoa). Lore arrak lau atal berderekin eta lau estaminerekin. Obulutegi superoa eta luma-itxurako estigma eseriarekin.	13	Filotaxia:  Oposatuak	<i>Urtica dioica</i>	Urticaceae
3	Hosto guztiak oinaldekoak, Paralelinerboak; erraboila nabarmena. Tepalo zuriko lor trimerokoak, matsalko edo luku handi batean antolatuak. Goi obulutegia.	10	Karpelo kopurua: 3, ginezeo trikarpelarria	<i>Urginea maritima</i>	Hyacinthaceae
4	Hosto oposatu txikiak eta peziolo laburrekoak. Lore heteroklamideo pentameroak. Korola ezpainbikoa. Obulutegia lau gingiletan. Androzeo didinamoak, lau estamine eta antera arrosak.	12	Obulutegia: sinkarpikoa ala apokarpikoa. Eta karpelo kopurua: Sinkarpoa eta bikarpelarria da, hau da, bi karpelo ditu	<i>Tymus vulgaris</i>	Lamiaceae

5	Errizomadun landarea. Hosto eseriak eta osoak, gehienak oinaldean eta zurtoinekoak oposatuak. Liguladun loreak irekiak daude, eta bai hauek eta bai floskuloak horiak dira. Bilanodun fruituak.	2	Karpelo kopurua: bi karpelo dituen bikarpelarra da	<i>Arnica montana</i>	Asteraceae
6	Hosto txandakatuak, estipula nabarmenekin eta inparipinatuak. Lore heteroklamideoak, periantoko bertiziloak pentameroak eta korola aktinomorfoa, krema kolorekoa. Poliandria. Fruitua poliakenioa.	19	Karpeloak aske ala elkarri lotuak: karpeloak aske daudenez, apokarpikoa da	<i>Filipendula ulmaria</i>	Rosaceae
7	Hosto eseriak, dekusatuak, oinaldekoak errosetan elkartuak. Pleokasio motako infloreszentzia. Lore pentameroa eta korola arrosa gamopetaloa. Fruitua kapsula eta obulutegia bikarpelarra.	26	Obulutegia: sinkarpikoa ala apokarpikoa: Sinkaepikoa	<i>Centaurium erythraea</i>	Gentianaceae
8	Errizoma beltza eta kolore bereko sustrai arrotzak ditu. Hosto txandakatuak, pinatisektuak eta lakain estukoak. Lore bakartiak, muturrekoak, aktinomorfoak eta heteroklamideoak. Kaliza dialisepaloa eta pentameroa. Poliakenioa.	6	Obulutegia (goi ala behe): Goi obulutegia	<i>Adonis vernalis</i>	Ranunculaceae
9	Hosto txandakatuak, oinaldekoak trifoliatuak eta goikoak bakunak. Lore hori handiak binaka kokatuak, heteroklamideoak, pentameroak eta zigomorfoak. Kaliza gamosepaloa eta korola dialipetaloa. Androzeoa monadelfoa da, hamar estaminekin.	4	Fruitu motaren izena: Leka (suple, lehor eta zabalkorra).	<i>Cytisus scoparius</i>	Fabaceae
10	Triangelu formako hosto txandakatu eta pinatikonposatuak. Lore zuriak, pentameroak eta aktinomorfoak. Eskizokarpia ia esferikoa, sahiets nabarmen eta uhinduekin.	8	Infloreszentzia motaren izena: Unbela.	<i>Conium maculatum</i>	Apiaceae
11	Hosto txandakatuak, inparipinatuak. Arrosa-lila koloreko lore papilionazeoak alboko malsalko edo lukutan antolatuta. Androzeo diadelfoa.	14	Karpelo kopurua: karpelo bakarra duenez, monokarpelarra da	<i>Glycyrrhiza glabra</i>	Fabaceae
12	Hosto txandakatuak, oso zatituak eta orratz-itxurako segmentuekin. Lore berdexka-horixkak, aktinomorfoak, korola pentameroa eta dialipetaloa. Ginezeo sinkarpikoa. Estilopodioak. Loreak unbela konposatuetan biltzen dira.	25	Obulutegia (goi ala behe): Behe obulutegia	<i>Foeniculum vulgare</i>	Apiaceae
13	Hosto eseriak, zintakarak eta	22	Fruitu motaren izena:	<i>Colchicum autumnale</i>	Colchicaceae

	zorrogileak. Lore arrosak, homoklamideoak eta bertizilo trimerokoak.		Papirazeo kapsula		
14	Hosto palmatisektuak. Lore zigomorfo eta homoklamideoak. Infloreszentzia mota matsalko bakuna. Poliandria. Polifolikulua.	21	Fruitu motaren izena: Polifolikulua	<i>Aconitum napellus</i>	Ranunculaceae
15	Hosto txandakatuak, trifoliatuak eta estipuladunak. Lore heteroklamideoak, zigomorfoak, alboko matsalko edo lukutan antolatuta. Androzeoan hamar estamine.	20	Korola motaren izena: Papilonazeoa	<i>Melilotus officinalis</i>	Fabaceae
16	Hosto txandakatuak eta pinatisektuak. Lore aktinomorfoak, pedunkuludun unbeletan agertzen direnak. Korola horia, lau petalo askerekin. Ginezeo bikarpelarra. Fruitua kapsula luze bat da.	27	Obulutegia (goi ala behe): Goi obulutegia	<i>Chelidonium majus</i>	Papaveraceae
17	Lerro itxurako hosto oposatuak. Lore zigomorfo, heteroklamideoak eta periantoko bertiziloak pentameroak. Kaliza gamosepaloa. Obulutegia lau gingiletan zatitua. Merikarpo borobilduak. Bi estamine.	24	Obulutegia (goi ala behe): Goi obulutegia	<i>Rosmarinus officinalis</i>	Lamiaceae
18	Zurtoin errizomaduna. Hosto eseriak eta ijelkia bost zatitan. Lore aktinomorfo heteroklamideoak eta periantoko bertiziloak tetrameroak.	5	Filotaxia: Hosto txandakatuak	<i>Potentilla erecta</i>	Rosaceae
19	Hosto eseriak, txandakatuak, ertz zerradun eta arantzadunarekin. Kapitulu bakartiak, handiak eta inbolukroko braktea arantzadunekin. Lore guztiak hodi-itxurakoak (floskulo gamopetaloak) eta mokorik gabeko bilanodun zipselak .	15	Infloreszentzia motaren izena: Kapituluak	<i>Silybum marianum</i>	Asteraceae
20	Errizomadun landarea. Zurtoin berdeak. Hostoak ikusgaitzak, ezkatakarak. Lore bakartiak. Perianto homoklamideoa, 6 tepalo berdexkaz osatua. Fruitua baia.	23	Zurtoinaren eraldaketaren izena: Filoklodoa	<i>Ruscus aculeatus</i>	Convallarioaceae
21	Zurtoin lauangeluarra. Hosto oposatuak nerbio nabarmen , peziolo luze eta ijelki eliptiko-lantzeolatuarekin. Lore heteroklamideoak, kaliza gamosepaloa; korola ezpainbikoa eta gamopetaloa, kasko antzeko goi-ezpainarekin.	18	Infloreszentzia motaren izena: Bertizilastroak	<i>Salvia lavandulifolia</i>	Lamiaceae
22	Hosto txandakatuak, oinaldean elkartuak, peziolo luze eta ijelki palmatisektuarekin. Lore zuriak unbela konposatu etan bilduta daude. Unbela sinpleak oso	17	Fruitu motaren izena: Eskizokarpoa	<i>Sanicula europaea</i>	Apiaceae

	kondentsatuak. Eztenez betetako merikarpoak.				
23	Hostoak sinpleak eta oposatuak eta ijelkiaren forma obatua. Lore pentameroak. Kaliza eta korola ezpainbikoak. Estigma bifidoa. Fruitua lomentua.	9	Androzeo motaren izena: Didinamoa	<i>Melissa officinalis</i>	Lamiaceae
24	Oinaldeko hostoak bi-hirutan pinatisektuak, peziolodunak, eta infloreszentzietakoak behin pinatisektuak eta peziolo laburrekoak. Kapituluak borobilduak, zintziliak eta panikulatan. Floskuloak soilik eta kardilaunik ez.	1	Obulutegia (goi ala behe): Behe obulutegia	<i>Artemisia absinthium</i>	Asteraceae
25	Hosto obatua, eseriak eta anplexikauleak; ertza irregularki hortzduna da. Lore bakartiak zurtoinarekin muturrean. Lau petalo, sarritan orbandunak. Estamine ugari eta goi-obulutegia.	3	Fruitu motaren izena: kapsula	<i>Papaver somniferum</i>	Papaveraceae
26	Hosto txandakatuak, bi-hirutan pinatisektuak. Lore zigomorfoak, txikiak. Kaliza bi sepalo obatu arrosaz eratua, ertz hortzdunarekin. Korola ezproi zabal batekin, bertandago nektarioa. Petaloen puntak ilunagoak dira.	29	Infloreszentzia motaren izena: Matsalkoa	<i>Fumaria officinalis</i>	Fumariaceae
27	Hosto bakun txandakatuak, sakonera txikiko gingilekin. Perianto pentameroa. Estamine ugari, harizpiak elkarri lotuta estilo inguruan zutabea eratzuz. Fruitua eskizokarpoa da.	16	Dialipetaloa ala gamopetaloa: Dialipetaloa	<i>Althaea officinalis</i>	Malvaceae
28	Hosto txandakatuak, handi eta zabalak, peziolodunak, ertza hortz zabal eta triangeluarrekin. Hodi-itxurako kaliza eta inbutu-itxurako korola. Fruitua eztenez betetako kapsula da.	28	Obulutegia (goi ala behe): Goi obulutegia	<i>Datura stramonium</i>	Solanaceae
29	Peziolo motzeko hosto oposatu lantzeolatuak. Hostoaren ertza osoa da, zertxobait errebolatua. Zilar-koloreko azpialdea, eskata txikiak direla eta, erdi-nerbio nabarmenarekin. Korola gamopetaloa lau petalorekin eta kalizaren hortzak ez dira oso ikusgarriak. Fruitua drupa da.	30	Obulutegia (goi ala behe): Goi obulutegia	<i>Olea europaea</i>	Oleaceae
30	Hostoak oinaldean, peziolo luzearekin eta bihotz-itxurako ijelkiarekin. Zurtoineko hostoak txikiak, eskata-itxurakoak. Lore	7	Estamine kopurua: 5 estamina	<i>Tussilago farfara</i>	Asteraceae

	liguladun (oso txikiak) eta floskulo horiak. Mokorik gabeko bilanodun zipselak.				
--	--	--	--	--	--